

**BI MILA ETA HAMABOSTEKO MAIATZAREN HOGEITA  
BEDERATZIKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA.**

Arrietan 2015eko ekainaren hamarrean, 13:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu da udaletxeko Bilkura Aretoan, lehenengo deialdian, Antolamendu, funtzionamendu eta errejimen juridiko araubidearen 36.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez alkate Jauna Udalburu dala, eta Udaleko kargua utziko duten zinegotziak dagozala, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita bederatziko bilkuraren akta onartzeko asmoz.

Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez jauna eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratu dira:

Aitzbea Yarto Goiri  
Aitziber Ibinarriaga Delgado  
Jose Jesus Iturbe Oñartetxebarria  
Eduardo Saez Rementeria  
Beñat Barainka Enzunza

Lorenzo Ortiz Guerrak aurretiaz azaldu du bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagoen aztergai bakarrari ekin jako.

**I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO MAIATZAREN HOGEITA  
BEDERATZIAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTAREN  
IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

2015eko maiatzaren hogeita bederatziko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura ordu bata eta laurdenetan, akta hau idatziz, neuk, idazkari honek, fede emanez.